eskoriatzako udala

obra eta zerbitzuak

ESKORIATZAKO UDALERRIKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO, HORIEN MANTENTZE-LANAK EGIN ETA GARBITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA AURRETIAZ IZAPIDETUTA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA.

1.- KONTRATUAREN HELBURUA.	1
2.- KONTRATUAREN EREMUA.	1
3.- ZERBITZUAN EGIN BEHARREKO LANAK	2
4.- GUNEAK: ZERBITZUAREN ALDIZKOTASUNA ETA MAIZTASUNA	14
5.- PERTSONALA	16
6.- MATERIALA ETA MAKINERIA	19
7.- INSTALAZIOAK	23
8.- LANEN ANTOLAMENDUA ETA KONTROL SISTEMAK.	24
9.- MEMORIAREN EDUKIA ETA LUZERA	25

1.- KONTRATUAREN HELBURUA.

Baldintza teknikoen agiri honen helburua da Eskoriatzako berdeguneak, parkeak, lorategiak eta zuhaitzak zaintzeko, horien mantentze-lanak egiteko eta horiek garbitzeko lanak egiteko ezaugarri espezifikoak zehaztea.

Helburu hori Europako Batzordeko Kontratuen Hiztegi Komuneko (CPV) nomenklaturaren 77311000-3 kodeari dagokio (parke eta lorategien mantentze zerbitzuak).

Zerbitzua emateko ingurumena eta lan osasuna errespetatzen dituzten metodoak, praktikak eta produktuak erabiliko dira, eta besteak beste, horien artean sartzen dira hondakinen kudeaketa zuzena edo ingurumen aldetik makineria jasangarria erabiltzea.

I. ERANSKINEAN adierazten dira herrian mantendu beharreko berdeguneak osatzen duten eremuen zerrenda eta planoan neurtutako azalera, kontratuaren iraunaldian gehitzen joan daitezkeen azalera berrien kalterik gabe. Malda duten eremuak planoan neurtu dira, malda kontuan izan gabe.

Enpresa esleipenduna behartuta egongo da berdegune berriak edo Udalak kontratuari gehitzeko egoki iritzitako aldaketak onartzera. Horretarako, Udalak mantentze-lanen baldintzak erabaki ahal

izango ditu, bai egungo eremuenak zein gune berrienak, esleipendunak gehikuntza horiek bere gain hartu ahal izateko eskaintzaren kostea igo gabe.

Era berean, beraien neurriengatik edo beste ezaugarri berezi batzuengatik, hala nola, kokapenagatik, kudeaketa eta mantentze lan egokia egitea ezinezkoa den edo zailtzen duten egungo eremuak egokitzeko eta neurriz aldatzeko plan bat diseinatuko da udal teknikariekin batera.

2.- KONTRATUAREN EREMUA.

Kontratu honen helburu diren lanak baldintza teknikoen agiri honetako 3. kapituluan deskribatzen dira.

Bestalde, kontratu honen eremua baldintza teknikoen agiri honetako 4. kapituluan zehaztutako guneek osatzen dute eta erantsitako planoetan jasotzen da.

Udalak lorez osatutako gune eta soropil berriak egin ahal izango ditu, zuhaitzak landatu, lekuz aldatu, zoladura aldatu eta egoki iritzitako behar beste jarduera.

Esleipena mantentze-lanetarako denez bakarrik, esleipendunak ezingo du zaindu beharreko elementuen trazatua edo ezaugarriak alda dezaketen obra edo hobekuntzarik egin Udalaren berariazko baimenik gabe.

3.- ZERBITZUAN EGIN BEHARREKO LANAK.

Hemen jasotzen diren lan guztien deskribapen laburra egiten bada ere, erreferentzia moduan hartuko dira beti, bai lan hauek egiteko bai aipatu barik utzitako lanak egiteko, nekazaritzako ingeniari teknikoen elkargo ofizialetako oinarrizko lorategi arau teknikoetan jasota dauden xedapenak, Parke eta Lorategien Espainiako Elkarteak argitaratzen dituenak eta horiei buruzko gainerako arauak.

Lan guzti horiek enpresa esleipendunak egin beharko ditu eta urteko kanonean sartuta egongo dira.

Orokorrean, enpresa esleipendunak kudeaketa integratuko teknikak erabili beharko ditu eta kudeaketa jasangarriagoa lortzeko tresna espezifikoak erabiltzea proposatu. Tresna eta teknika horien erabilera espezifikoki baloratuko da.

Berdeguneak mantentzeko honako lanak egin beharko dira:

3.1. Soropilak moztea.

Behar besteko maiztasunez moztuko da belarra, altuera larregi hartu ez dezan, apain mantendu dadin lorategia eta osotasunean kaltetu ez dadin soropila. Altuera hori guneen araberakoa izango da.

Soropil guneak: gehienezko altuera, 10 cm; eta gutxienez hilean behin moztu beharko da.

Ezponda guneak: urtean 2 aldiz moztu beharko da belarra edo soropila, eta 2 aldiz garbitu.

Belarra mozketa garbi batez moztu behar da, urradurarik gabe, eta horretarako, hortzak behar bezala zorrozturik daudela begiratu beharko da.

Moztutako belarra Akeiko landare isurtegira eraman beharko da. Hondakindegia lekuz aldatuz gero, adierazitako leku berrira garraiatzea ere kontratuan sartuta egongo da.

Soropiletan, *mulching* teknika ere aplikatu ahal izango da; horretarako, makina egokiak eduki beharko dira, soropila behar bezala moztu, birrindu eta zabaltzeko. Kasu horretan, maiztasuna handituko da.

Soilik ezinbesteko arrazoiak izango dira aitzakia moztutako belarra egunean bertan ez kentzeko. Kasu horretan, beharrezko neurriak hartuko dira belarrak ez dezan ingurua zikindu eta ahalik eta azkarren kentzeko.

Eremu bakoitzean hilean egindako mozketa kopuruaren kontrola aurkeztu beharko du enpresa esleipendunak.

Udalak horrela adierazitako lekuetan *mulch*-a edo material organikoa (lastoa, zuhaitz azalak, koko azala…) botako da lurra babesteko, belar txarrak hazi ez daitezen eta lurrarentzat ongarri izan dadin.

3.2. Soropilean egin beharreko beste lan batzuk.

Enpresa esleipendunak beharra ikusten duenean eta lur zoruaren egoerak hala eskatu, beharrezkotzat jo ahal izango da lan osagarriak egitea: betetzea, areatzea, sakon airatzea…

Eskaintzan zehatz-mehatz adieraziko dira egin beharreko lan osagarriak eta zein eremutan jotzen diren beharrezkoak eta zein baliabide erabiliko diren.

3.3. Ureztatzea.

Udalak urtero ezarriko ditu eremuetako ureztatze irizpideak eta enpresa esleipendunari adieraziko dizkio.

Ezarritako irizpideak gorabehera, denboraldiko loreak, landare bizkorrak, zuhaixkak eta zuhaitzak ureztatzea lehentasunezkoa eta derrigorrezkoa izango da landare horiek kaltetu ez daitezen.

Ureztatzea noizbehinka edo egunero egingo da, beharrezko izango den urte sasoian, baldintza edafoklimatikoak eta landare espezieak kontuan izanda, landareek lurrean izan dezaten beraien garapenerako behar duten ur erabilgarri portzentaje nahikoa.

Automatikoki ureztatzeko jarritako sistema bidez ureztatuko dira berdeguneak sistema hori jarrita dagoen lekuetan; ez dagoenetan, mahuka erabili ahal izango da.

Enpresa esleipendunak programatu beharko ditu ureztatze-instalazioak eta urtero idatziz aurkeztu beharko du urteko ureztatze programa, Udalak onartu beharko duena. Programa horretan maiztasunak, ureztatzeko orduak (eguzkiak gutxien jotzen duenean) eta ureztatze dosia zehaztu beharko dira. Hala ere, programazioa uneko eguraldiari egokitu beharko da.

Ur kontsumoa eta ureztatze automatikoak kontsumitutako argindarra Udalaren kargura izango dira. Ur kontsumoaren kasuan, enpresa esleipendunak ureztatzeko behar beharrezko ura erabiliko du bakarrik, ahalik eta gutxien eta ezinbestekoa nahi diren ondorioak lortzeko, eta erabilitako sistemen manten-lanen faltarengatik edo ur ihesiengatik ur galerarik egon ez dadila zaindu beharko du, eta matxuraren bat egonez gero, berehala konpondu. Esleipendunak bat edo hainbat kontagailu jarriko ditu, Udalak lagatakoak, kontsumoa kontrolatu ahal izateko.

Ureztatze baldintza horiek ez betetzeagatik (gaizki itxitako ur ahoak) ur jarioak, lur higadurak edo beste kalte batzuk sortuko balira, kalteturiko gunea bere onera ekartzeko lanak egin beharko ditu enpresa esleipendunak. Isuritako uraren kostua ere bere kontura izango da.

Enpresa esleipendunak, ahal duenean, eta egingarria denean, edateko ez den baina ureztatzeko egokia den ura erabili beharko du (euri ura, araztua eta abar).

3.4. Ertzak moztea.

Soropil guneen ertzetan, soropila bide guneetan edo lore parterretan sar ez dadin, soropila mozten den bakoitzean eta gutxienez urtean hirutan, ertzak moztuko dira, gainezka dagoen zatia kenduz.

3.5. Tarteak aitzurtzea eta jorratzea.

Soropiletako belar txarrak laborantza-tresnekin edo eskuz kenduko dira. Jorratzearen helburua da landareen inguruko belar txarrak kentzea. Jorratze kimikoa (herbizidak botata egiten dena) ez dago baimenduta, bere egokitasuna aurrez justifikatzen ez bada. Landareak dauden gune guztiak urtean gutxienez 2 aldiz jorratu beharko dira.

Lore guneetan maiz aitzurtuko dira tarteak, belar txarrik ez hazteko eta lurraren egitura egokiari eusteko. Maiztasuna tokiko klimaren araberakoa izango da.
Zuhaixka eta zuhaitzak urtean bitan aitzurtuko dira, udaberrian eta udazkenean, sustraiak kaltetu gabe; sakonera: 12-15 zentimetro.

Txorkoetako belarrak ez dira sekula moztuko, atera egingo dira behar hainbestetan. Ezingo da herbizidarik erabili Udalak horretarako berariazko baimenik ematen ez badu.

Tarteak aitzurtzearen helburua da lurraren egitura ona egoki mantentzea, 5-10 cm-ko sakoneran aitzurtu beharko da, sustraiak kaltetu gabe.

Txorkoetako zuhaitzak urtean 2 aldiz jorratuko dira gutxienez. Txorkoetan landatutako zuhaitzetan, azalera guztia jorratu beharko da.

Urtean behin loratzen diren lore guneetan, beharraren arabera, lurra uneoro belarrik gabe egon dadin.

3.6. Betetzea.

Higadurak edo trinkotzeak belar sustraiak airean utziz gero, belarra moztutakoan berehala beteko da lurrustel eta hondar nahasketa batekin. Ondoren, alperra pasako da.

3.7. Ongarritzea.

Ongarri mineralak berdegune, txorko eta jardineretan.

Hau da, beharrezko diren ongarri mineralak eta beste produktu mineral batzuk botatzea soropiletan, sasoiko lore multzoetan, landare bizikorrei, zuhaixka taldeetan, berdeguneetako zuhaixka eta zuhaitz taldeetan, kaleetako txorko lerroetan eta jardineretan, landareen garapen eta egoera fisiologiko ona lortu ahal izateko.

ESKORIATZAKO UDALERRIKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO, HORIEN MANTENTZE-LANAK EGIN ETA GARBITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA AURRETIAZ IZAPIDETUTA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA.

Lan horiek egiteko sasoia, nagusiki, udaberria eta udazkena izango dira, eta sasoi horien artean egiteko beharra ikusiz gero, dagokion agindua jasotakoan egin beharko da. Ongarri mineralak egon dauden landareekin erabiliko dira, sartu berritan botatzeko ongarrietatik bereiziz.

Erabiliko diren produktuen osagaien artean N,P eta K elementuak izan beharko dira, bai elementu isolatu bezala edo nahasian, eta osagaien konposizioa eta aberastasuna agertu beharko da. Oligoelementuak ere izan ditzakete. Halaber, lurraren egitura hobetzeko beharrezkoa balitz, karea erabiliko da (ahal bada, kare bizia).

Zelaietan belarraren gainean botako da ongarria, eskuz edo baliabide mekanikoen bidez. Baina, zuhaixkak, zuhaitz taldeak, palaxuak, lore multzoak, tipulak edo bizikorrak ongarriztatzeko jorratutako lekuan botako da ongarria, eta ondoren, eskuarearekin edo lurrustelarekin estali.

Bota beharreko ongarri dosia ongarri mota edo ongarritu behar diren aldeak kontuan hartuta egingo da, proposamenarekin batera eskatuko den azterketaren eta eskaintzetatik ateratako ondorioen arabera.

Ongarri organikoak.

Ongarri organikoa produktu egokienak erabiliz egingo da, belar txar gabeak eta horretarako beren beregi zaindutakoak erabiliko dira; eta zizare gorriaren humusa, oilo-kaka, hartzitua, lurrustela, eta abar izan beharko ditu.

Zelaian ez da inoiz simaurrik erabiliko, baizik eta lurrustela edo zizarearen humusa; eta zuhaixka, sasoiko palaxu, lore multzo, zuhaitz multzo, arrosa multzo eta abarretan, simaurra botako da aitzurtutako sailetan.

Ongarriztatzea udazkenean edo neguan egingo da, eta aurrez Udalaren oniritzia izan behako da. Bota beharreko ongarri dosia ongarri mota edo ongarritu behar diren aldeak kontuan hartuta egingo da, proposamenarekin batera eskatuko den azterketaren eta eskaintzetatik ateratako ondorioen arabera.

Soilik ongarri organikoak eta konposta erabiltzea baimenduta dago. Ongarri kimikoen erabilera soilik Udalak horrela zehaztutako guneetara mugatuta dago. Gainerako guneetarako lurraren kalitate fisikoa eta kimikoa hobetzeko konposta edo konpost asko duten lur hobetzaileak botako dira.

Birlandaketa bat edo berdegune berri bat egindakoan eta lur hobetzaileak bota, horiek zohikatzik ez izatea baloratuko da.

Kasu guztietan, baloratuko da ongarriek lurzoruen medeatzeetako edo laborantza substratuetako konposizioaren eta substantzien Europako Etiketa Ekologikoaren irizpideak betetzea.

Kasu guztietan, enpresa esleipendunak lurzoruei, ongarriei, landare osasunari eta ingurumenari buruz indarrean dagoen legeria errespetatuko du; eta, ingurumenari eta azaleko eta lur azpiko uren kutsadurari dagokienez, Europar Batasuneko, Estatuko edo Autonomia Elkarteetako araudiei egokituko da.

Urteko loreen guneak ongarritzea.

Urteko loreen guneak ongarritzea derrigorrezkoa izango da, gutxienez 2 aldiz urtean.

Eskaintzan zer-nolako ongarri organiko erabili behar den adieraziko da: marka, dosia, zein urtarotan erabiliko den, nola…

Enpresa esleipendunak urtero aurkeztuko du idatziz urteko loreen eta landare bizikorren guneetan egin beharreko ongarritze plana, eta bertan adieraziko beharko du zer-nolako ongarri organikoa erabili behar duen: marka eta dosia. Plana Udalak onartu beharko du.

Gainerako guneen ongarritzea.

Gainerako guneak ongarritzeko azterketa ere eskaintzan aurkeztu beharko da. Ongarri mota, dosia, urte sasoia… adierazi beharko dira.

Udal konpostarekin ongarritzea

Udalak bere konposta baldin badu, esleipendunak konpost hori jaso, garraiatu eta zabaldu beharko du zerbitzuan aurreikusitako baliabideekin. Kasu horretan, ongarriztatzeari (Udalekoa ez den ongarriarekin) dagokion partida kenduko da kanonetik edo diru hori beste zerbitzu mota batzuetarako erabiliko da. Edonola ere, enpresa esleipendunak hustu beharko ditu konposta egiteko udal guneetako edukiontziak, eta eskaintzan adierazi beharko du lan horiek egiteko gutxieneko maiztasuna.

3.8.- Tratamendu fitosanitarioak.

ESKORIATZAKO UDALERRIKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO, HORIEN MANTENTZE-LANAK EGIN ETA GARBITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA AURRETIAZ IZAPIDETUTA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA.

Esleipendunak, bere baliabideekin, kontratuko helburu diren zonaldeetako berdegunetan edo landaretan gaixotasunak eta izurriak prebenitzeko tratamenduak egingo ditu garai egokietan, eta baita gaixotasunak eta izurriak desagerrarazteko tratamenduak ere.

Fitosanitarioen erabilerak dituen arriskuarengatik, behar beharrezkoa denean erabiliko dira bakarrik, eta izurrien kudeaketa integratua sustatuko da: prebentzioa, tratamendu ekologikoak, borroka biologikoa, feromonazko tranpak eta abar. Hau da, bai pertsonentzako bai ingurumenerako ahalik eta toxikotasun eta eragozpen gutxienekoak erabiliko dira, eta tratamendua hasi baino lehen idatziz jakinarazi beharko zaio Udalari kasu bakoitzean erabili beharreko formula, metodoa eta dosia

Erabiliko diren produktu fitosanitarioak eta ongarriak esleipendunak jarri beharko ditu, eta tratamenduak kontrolatu eta jarraipena egiteko informazio teknikoa jasotzeko sistema egokiak izan beharko ditu.

Eskaintzarekin batera lorategien gaur egungo egoeraren eta epe motzean eta ertainean egin beharreko ekintzen gaineko azterketa teknikoa aurkeztu beharko da. Azterketak eskaintzaren kalitate teknikoa baloratzeko balioko du.

Produktu bioziden edo fitosanitarioen aplikazioa ahalik eta gehien murriztu behar da, betiere berdeguneetako landaretzaren osasuna bermatuz. Horretarako, izurriteak kontrolatzeko plan integral bat aurkeztu behar du lizitatzaileak, eta bertan, arazo bakoitzari emango dion tratamendua zehaztu beharko du (prebentiboa, mekanikoa, termikoa, biologikoa). Plan hori esleipen irizpideetan baloratuko da. Era berean, erabiliko dituen produktuak zehaztuko ditu –kasu bakoitzerako espezifikoak izan behar dira–.Tratamendua plana jarraituz egingo da eguraldi baldintzak egokiak direnean.

Erabilitako produktuek honako irizpide hauek betetzea baloratuko da:

- N, T, T+ edo C gisa sailkatuta ez egotea, 255/2003 errege dekretuaren arabera, edo H300, H301, H310, H311, H314, H330, H331, H370, H372, H400, H410, H411 edo EUH059 bezala 1272/2008 (CE) erregelamenduaren arabera.
- R45, R46, R60, R61, R62, R63 eta R64 kodeekin sailkatuta ez izatea 255/2003 ED beraren arabera, edo H350, H340, H360F, H360D, H360Fd, H360Df, H361f, H361d, H361fd edo H362 kodeekin 1272/2008 (CE) erregelamenduaren arabera.
- Potentzialki biometagarriak ez direnak. Horretarako, osagai aktibo organikoek duten oktano/ur (Log Kow) banaketak 3 baino txikiagoa edo 7 baino handiagoa izan beharko du Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) 123 metodoaren arabera; eta konposatu inorganikoen biokontzentrazio faktore erregistratuak ≤ 100 izan

beharko du ELGAren 305 metodoaren arabera. Beste test baliokide batzuk ere onartuko dira.

- Biodegradagarriak izatea (ready biodegradability), ELGAren 301 A-F metodoaren edo haren baliokide den baten arabera.

Tratamendu fitosanitarioa behar dela eskatzeko idatzian, enpresa esleipendunak honako hauek adierazi beharko ditu:

- Landarea non dagoen.
- Tratatu beharreko gaixotasuna edo izurritea.
- Erabili behar den produktuaren formula eta dosifikazioa eta segurtasun epeak.
- Aplikatzeko metodoa.
- Tratamendu eguna eta ordua, eta beti ahalegindu beharko da jende gutxien dabilenean egiten (gauean edo goizaldean), haizerik edo euririk gabe eta auzokoei eta inguruan aparkaturik dauden ibilgailuei kalterik sortu barik.

Eskaintzan, lorategietan dauden landareen izurriteen eta gaixotasunen azterketa xehatu bat aurkeztu behar da, eta hala badagokie, gaixotasun edo izurrite bakoitzerako proposatzen diren prebentzio eta sendatze tratamenduak, honako hauek adieraziz: erabiliko diren produktuak, zelan aplikatuko diren, dosia, kostua…

Izurrite eta gaixotasun kontrola teknikari arduradun kualifikatu batek egingo du, kalteak sortu dituen patogenoa zehazteko eta kontrol metodoak preskribitzeko gauza izan beharko dena.

Aplikazioak egiteko langile arduradunak oinarrizko mailako edo maila kualifikatuko pestizida manipulatzailearen agiria izan beharko du.

Enpresa esleipenduna Defentsa fitosanitariorako baliabideen Ekoizle eta Operadoreen Erregistroan (ROPO) inskribatuta egotea baloratuko da.

Ongarrien eta bioziden ontzietarako irizpideak.

Ongarrien eta bioziden ontziak behar bezala etiketatu behar dira honako ezaugarri hauekin: izena, konposatu arriskutsuak, erabiltzeko argibideak eta dosifikazioa. Gainera, dosifikatzeko tresna zehatzak izan behar dituzte.

Produktuen ontziei dagokienez, horiei buruz indarrean dauden arauak beteko dituzte, behar bezala etiketaturik eta gordeta egon beharko dira, eta dosifikatzeko tresna zehatzak izan beharko dituzte.

Erabili beharreko materialek ez dute sortuko kutsadurarik giroan ez hondakin-uretan, indarrean dagoen legediaren arabera.

3.9. Zelaiak aireztatzea.

Zelaietan urtean bi aldiz gutxienez aireztatzailea pasa beharko da, eta ondoren, zelaiak beteko dira lurrustel edo zohikatzarekin eta hondarrarekin. Aireztatzean sortutako zatiak kendu eta atera edo zelai gainean txikitu beharko dira zelaia bete baino lehen. Ondoren, alperra pasa eta ureztatu egingo da. Lan horien maiztasuna, aurrez Udalak eskatuta, lorategien egoeraren araberakoa izango da. Lanak egiteko materialak esleipendunak jarri beharko ditu.

3.10. Lore parterreak.

Garaiko landareei dagokienez, landare berriak kontratistak landatuko ditu bere kargura. Aurreikusitako parterretan beti egon beharko dira loreak, eta horiek landatzeko lan guztiak ere bere kargura izango dira. Eskaintzarekin batera landare egokienen eta landaketa programaren azterlana aurkeztu beharko da. Azterlanak eskaintzaren kalitate teknikoa baloratzeko balioko du.

Landareak aukeratzeko irizpideak.

Administrazioak sasoiko landareak erostea edo dauden landareak inguruko klimara hobeto egokitzen diren beste batzuekin ordezkatzea eskatuko du urtean zehar.

Urteko edo denboraldiko loreak dira 6 hiletik beherako ornamentu zikloa duten landare belarkara loredunak. Landare horiek loreengatik bakarrik dira interesgarriak, eta loraldia bukatu eta gero ordeztuko dira.

Erraboilak edo 6 hiletik gorako ornamentu zikloa duten lore landareak, kasu bakoitzean, lore bizikorrak edo erraboilak dira.

Enpresa esleipendunak landare bizikorrak edo erraboilak jarriz gero lore esparru horietan, beharrezkoa izango da loraldiaren ostean landare bizikorren beste gune batzuetara eramatea, edo beste aldi baterako gordetzea.

Udalak oraingo egoera mantenduz gero, hau da, urteko loreen gunerik gabekoa, kontsignazio ekonomikoa Udalak erabakiko lukeen beste lan edo hornidura bat egiteko erabiliko litzateke.

Landareak gutxienez 10,5eko lore-potean landaturik etorriko dira, eta sustraiturik eta laster batean loratzeko moduan egongo dira. Landatzeko gutxieneko dentsitatea 20 landare/m2 izango da.

Eskaintzarekin batera urteko landare egokienen (erraboilak eta landare bizikorrak) eta landaketa programaren azterlana aurkeztu beharko da. Azterlanak eskaintzaren kalitate teknikoa baloratzeko balioko du. Gune bakoitzerako adierazi beharko da espeziea, landare kopurua, landaketa dentsitatea eta loratze sasoia.

3.11. Garbiketa.

Esleipendunaren mendeko langileek zorrotz eta etengabe garbituko dituzte baldintza teknikoen agiri honetako eremuko berdegune guztiak.

Kendu beharko dituzte berez jaiotzen diren landareak (belar txarrak); erortzen diren hostoak; belarra moztutakoan eta inausketa lanak egindakoan geratutako hondarrak; eta gune horietan izan daitezkeen paperak, hondakinak eta zaborrak.

Esleipendunak, gai horiek erratzez garbitu, bildu eta pilatzeaz gain, berehala kendu beharko ditu berak dauzkan bitartekoekin eta bere kontura. Horrez gain, txorkoetako zaborrak ere kendu beharko ditu.

3.12. Hondakinen kudeaketa.

Berdeguneetako hondakinak gaika batzea.

Berdeguneetan, txorkoak barne, egon daitezkeen hondakin guztiak, landare hondarrak eta landare ez direnak batzea da garbiketa, eremu horiek beti txukun eta erabilgarri egon daitezen.

Guneren batean lorazaintzako mantentze-lanak egiten diren bakoitzean, gunea garbitu beharko da. Enpresa esleipendunak mantentze lanetan sortutako hondakinen kudeaketa egokia bermatu behar du. Hau da:

- Zurezko zati organikoak in situ edo enpresako instalazioetan xehatuko dira eta adostutako eremuetako lur-estalkietarako erabiliko dira (*mulching*).
- Ontziak eta arriskutsuak ez diren beste hiri hondakin batzuk hirietan egiten den gaikako bilketa kontuan izanik bereiztu eta kaleko edukiontzietara botako dira.
- Produktu arriskutsuen ontziak bereizita bilduko dira eta baimendutako kudeatzaile baten bitartez kudeatuko dira.
- Olio lubrifikatzaileak eta ibilgailuen eta makinen beste produktu batzuk bereizita bilduko dira eta baimendutako kudeatzaile baten bitartez kudeatuko dira.
- Zati organiko guztia in situ, enpresaren instalazioetan edo baimendutako instalazio batean konpostatuko da.

Landare hondakinak.

Goian aipatutakoaz gain, landare hondakinak, diametroaren arabera, Mankomunitateko Akeiko isurtegira eramango dira, edo egurrentzako Altzaurtiko isurtegira.

3.13. Bide publikoetako loreontzien zaintza eta mantentze-lana.

Bide publikoetan dauden loreontzien zaintza eta mantentze-lanak egingo dira. Landaketa horien ezaugarriak direla-eta, ureztatzea hartuko da bereziki kontuan.

3.14. Udaletxeko eta kultura etxeko balkoietako eta barruko landareen zaintza eta mantentze-lanak.

Udaletxean eta kultura etxean dauden barruko landareen zaintza eta mantentze-lanak egingo dira.

Landaketa horien ezaugarriak direla-eta, ureztatzea hartuko da bereziki kontuan.

Landareak bi aldiz jartzea (udaberrian-neguan) zerbitzuaren kanon orokorraren barne dago.

3.15. Inausketa eta adarrak moztea.

ESKORIATZAKO UDALERRIKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO, HORIEN MANTENTZE-LANAK EGIN ETA GARBITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA AURRETIAZ IZAPIDETUTA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA.

Landare mota asko moztea da inaustea: zuhaixkak, zuhaitzak, hazkuntza libre eta zuzenduan, eta komenigarrien den eran eta garaian egingo da, landareak ahalik eta ondoren loratu eta indartzeko. Halaber, ezustean (bandalismoa, istripua, haizearen eraginez…) apurtutako adarrak inausiko dira eta ihartutako landareak kendu.

Lan hau garai egokienean egingo da beti, eta Udalak landare mota, leku eta egoera bakoitzeko emandako irizpideen arabera egingo da, betiere, arau orokor hauei jarraituz:

Lehendabizi, gaixotutako, hondatutako edo hildako adarrak inausiko dira.

Adar bizi eta egoera onekoak kentzea bakar-bakarrik adaburua soiltzeko, sustrai galera konpentsatzeko, zuhaitzari itxura emateko eta zuhaitz zaharrak edo indar gutxikoak indartzeko egingo da.

Oker hasitako, gurutzatutako edo elkarrengandik gertuegi dauden adar txikiak kenduko dira zuhaitzaren itxura naturala gordeaz.

Ez da inausketa gogorrik egingo, eta egin behar badira, bakarrik oso kasu zehatzetan, betiere Udalaren agindupean.

Kaleetan zuhaitzak inausiko dira kable elektrikoei eta telefonikoei, semaforoei, etxeei, ibilgailuei eta abarrei trabarik ez egiteko eta baita adarrak berez erori ez daitezen ere.

Kasu guztietan, behar beharrezkoa da mozketa zuzen egitea eta zauriak behar bezala zaintzea.

Adarrak ipurditik moztuko dira, zauria berdinduta utziz zuhaitz aldean. Ez da adar zatirik utziko kanpora begira, horiek infekzio gune izan eta orbaintzea zailtzen dutelako.

Ahalik eta mozketa gutxien egingo dira, tamaina txikikoei lehentasuna emanez.
Mozketak garbiak izan beharko dira, beraz, horretarako erabiliko diren tresnak zorrotzak izan eta desinfektatuta egon beharko dira. Beharrezkoa balitz, zauriak osatuko dira.

5 cm-tik gorako diametroko zauria duten mozketa guztiak fungizidaren batekin tratatu beharko dira. Fungizida bota aurretik horren formula onartu beharko du Udalak. Fungizida zuhaitza inausi bezain laster eman beharko da.

Istripuz edo aurreko urteetan gaizki egindako mozketen ondorioz sortutako zauriak ere tratatu beharko dira.

ESKORIATZAKO UDALERRIKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO, HORIEN MANTENTZE-LANAK EGIN ETA GARBITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA AURRETIAZ IZAPIDETUTA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA.

Zuhaitzek handitzeko behar beste leku duten lorategietan, plazetan eta beste berdegune batzuetan, osasunez egoera onean edukitzeko, itxura egokia emateko eta loratzeko behar besteko maiztasunez egingo da mozketa.

Kaleetako ilarako zuhaitzei dagokienez, bereizi beharra dago alde batetik astigar zuria eta ezkia, urtero inausten direnak; eta bestetik, gainontzeko zuhaitz hostoerorkorrak. Azken horiek inausteko maiztasuna Udalak zehaztuko du.

Zentzu horretan, esleipendunak urteko inausketa plana aurkeztu beharko du irailean, egin beharreko aldaketak egin ondoren Udalak onartu dezan, eta bertan adierazi beharko dira kaleak, zuhaitz motak, inausketa mota eta inausketa egutegia.

Lan hori egiteko beharrezko mozketa tresna guztiez gain (motozerrak, aizkorak, guraizeak eta abar), esleipendunak mozketaren ondorengo hondakinak kentzeko beharrezko baliabide mekanikoak izan beharko ditu. Hondakinok berehala kendu beharko dira.

Zenbait lan egiteko seinalizazioa, bereziki, ilarako zuhaitzen inausketa, esleipendunaren kontura izango da. Horretarako, beharrezko elementu guztiak izan beharko ditu, hala nola, obra-hesiak, trafiko seinaleak eta abar, lana zuzen egiteko behar besteko kopuruan.

Landareentzako egun egokietan egingo da inausketa, espezie bakoitza kaltetu gabe; baina, Udalak, noizean behin, beste irizpide batzuen arabera (gabonetako argiak…) hartu ditzake horri buruzko erabakiak. Zentzu horretan, eta ahal den guztian, hostoak erori baino lehen egingo da inausketa kaleak garbitzeko lanak errazteko.

Inausketa hondarrak kentzea.

Enpresa esleipendunak behar beste baliabide mekaniko izango ditu inausketako hondarrak eramateko, berehala egin beharko duena. Horrela, belarrak ebakitzetik, garbiketetatik eta inausketetatik sortutako landare hondarrak eta landare ez diren hondarrak eraman beharko dira sortzen diren egun berean. Soilik ezinbesteko arrazoiak izango dira aitzakia hondarrak egunean bertan ez kentzeko. Horrelakoetan, beharrezko neurriak hartuko dira.

Inausketa-hondarrak, diametroaren arabera, Mankomunitateko Akeiko isurtegira eramango dira, edo egurrentzako Altzaurtiko isurtegira. Landareentzako hondakindegia lekuz aldatuz gero, adierazitako leku berrira garraiatzea ere kontratuan sartuta egongo da.

Gerta daiteke ere inausketa hondarrak zatitu behar izatea Udalak baimendutako partikularren batek eramateko.

Landare ez diren hondakinak batu, poltsetan sartu eta gertueneko edukiontzietan bota beharko dira.

Landare bizikorrak inaustea.

Espezien arabera, baina, oro har, loraldiaren ostean, landare bizikorrak inausi egingo dira, eta hostoak eta adar zaharrak kenduko zaizkie biziberritu daitezen. Kasu batzuetan, denboraldian hainbat loraldi duten espezieak behar beste inausiko dira urtero.

Zuhaixkak inaustea.

Zuhaixkak eta landareak urtean 2 aldiz gutxienez inausi beharko dira.

Edonola ere, orain egiten den inausketaren ezaugarriak mantenduko dira besterik adierazi ezean.

Heskaiak inaustea.

Metro bat baino txikiagoak diren heskai baxuak urtean gutxienez 3 bider inausiko dira, eta heskai garaiak, gutxienez urtean behin.

Zuhaitzen aldizkako neguko inausketa.

Zuhaitzak neguan inausteko aldizkako lanak Udalak kasu bakoitzean ezarritakoaren menpe egongo dira. Printzipioz, aldizka inausitako zuhaitzak bakarrik inausiko dira, eta fatxadetatik, argiteriatik edo antzekoetatik gertu daudenak.

Enpresa esleipendunak irailean aurkeztu beharko du zuhaitzen aldizkako inausketa plana Udalak onartu dezan, eta bertan, gutxienez, honako hauek adierazi beharko ditu:

- Inausten hasteko eguna eta lanen egutegia, zonaldez zonalde.
- Mozteko erreminta guztiak, eta behar diren baliabide lagungarriak.
- Erabili beharreko seinaleak.
- Hartu beharreko segurtasun neurriak.
- Langileei emandako segurtasun prestakuntza.

Zuhaitzen oinaldeetako kimuak inaustea.

Behar den maiztasunez kendu behar dira zuhaitzek sortu ditzaketen adar zupatzaileak edo oinaldeko kimuak, oinezkoei behar bezala ibiltzea eragotzi ez diezaieten.

Inausketa.

Behar besteko maiztasunez egingo da.

Batez ere zuhaitzei egindako inausketak, inguruko segurtasuna bermatzeko (nagusiki oinezkoena edo ibilgailuena) eta semaforoetan, argiteria publikoan, leihoetan, eta abarretan trabarik egin ez dezatela bermatzeko. Egoera horiek antzemandakoan egingo dira, Udalari idatziz abisatu eta onarpena jasotakoan.

Zerbitzurako beharrezko diren baliabide lagungarriak enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

3.16. Zuhaitzak kontserbatu eta mantentzea.

Enpresa esleipendunaren betebeharra da herriko zuhaitzak zaintzea, kontserbatzea eta mantentzea Zuhaitz guztiek eragin dezakete istripuren bat apurtu edo erori egin daitezkeelako, eta arrisku hori handitu egiten da zuhaitzaren adinarekin eta tamainarekin. Mantentze-lanekin eta zaintzarekin arrisku maila onargarri bat lortu nahi da, zuhaitzen segurtasuna tratamendu egokiarekin bateragarria egiteko modukoa.

Enpresa esleipendunak zuhaitzen kontserbazioari eta mantentzeari buruzko txosten bat aurkeztu beharko du kontratuaren lehen urtean, eta bertan arreta berezia jarri beharko dio udalerriko zuhaitzen egitura egoerari, apurtzeko arriskuari eta osasun egoerari, arazo edo arrisku egoerak antzeman eta erabiltzaileen segurtasuna kontrolatzeko. Hurrengo urteetan jarraipena egingo zaio, urtero, hasierako txostenean jasotakoari.

Azterlana nola egingo den jarriko da eskaintzan, analisi instrumentalerako elementuak eta neurri zuzentzaileak adieraziz.

Gainera, enpresa esleipendunak berehala abisatu beharko du zuhaitzetan gorabeheraren bat izandakoan, eta txosten bat egingo du gorabeheraren arrazoiak eta hartu beharreko neurriak jasoko duena.

3.17. Berritze lanak.

ESKORIATZAKO UDALERRIKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO, HORIEN MANTENTZE-LANAK EGIN ETA GARBITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA AURRETIAZ IZAPIDETUTA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA.

Garaiko landareak, landare iraunkorrak, bizikorrak, zuhaixkak, zuhaitzak, zelaiak eta abar ordezkatzeko edo berriztatzeko lanak dira hauek, eta landareek itxura ederra erabat edo nabarmen galdutakoan edota landareen itxura kaxkarra ikusita laster egoera horretan egongo direla aurreikusitakoan egingo dira.

Lan horiek guztiak esleipendunaren kontura izango dira landareak hil edo horien egoera txarra honako arrazoi batengatik denean:

- Ureztatzean akatsak izan direnean ez delako ureztatu, gaizki egin delako, berandu, behar besteko dotaziorik gabe edo gaizki erabilita, edo instalazioak apurtutakoan ez denean zerbitzurako beste ureztatze sistemarik jarri.
- Tratamendu fitosanitarioetan egindako akatsak honako arrazoiengatik: ez egin, gaizki egin, berandu egin, behar besteko dotaziorik gabe egin edo horiek gaizki erabilita egin.
- Zaharregia izan berriztatzerik egin ez delako.
- Berritze lanetan edo landaketetan esleipendunak egindako markak.

Berritze lanetarako jarritako landareak aurrera egiten ez badute enpresa esleipendunari egotzi dakizkion arrazoiengatik, berriak jarri beharko ditu bere kontura.

Lan horiek, hasiera batean eta kontrako agindurik ezean, kontratuaren hasieraren hurbileneko garai egokienean egin beharko dira, eta hor sartzen dira Udalak markatutako eta bere ikuskaritzapean egin beharreko berritze lan edo landaketa berriak. Esleipendunak urtero aurkeztu beharko dio Udalari galdutako landareen kopurua eta horien zerrenda; halaber, ihartutako landare guztiak eta udal arduradunen iritziz egoera fitosanitarioarengatik horrela eskatzen dutenak moztu eta kendu beharko ditu. Jarri beharreko landare berrientzako egoki den sakoneraraino kendu beharko dira sustraiak, eta beharrezkoa balitz, zuloa egiterakoan ateratako lurra eta gainontzeko materialak berriztuko dira. Gainera, landarea behar beste estalita eta ureztatzeko txorkoarekin gelditu beharko da. Kasu berezietarako, hala nola, zuhaitz handi eta bestelakoetarako, horien ordez landatu beharreko landareen ezaugarriak Udalak ezarriko ditu.

Gainera, esleipendunak bere ustez berritu beharko liratekeen soropil guneen zerrenda behar bezala arrazoitua aurkeztu beharko du urte bakoitzeko lehen bi hilabetetan, udal arduradunek aztertu eta balioztatu beharko dutena.
Urtero, eta Udaletik jarritako irizpideen arabera, enpresa esleipendunak honako hauek egin beharko ditu derrigorrez:

- Lorategiak berreskuratzeko, gutxienez 2.975 euro loretan eta 1.500 euro zuhaixka eta tamaina txikiagoko beste landare batzuetan gastatu beharko ditu.
- Gutxienez 500 euro gastatu beharko ditu zuhaitzetan.

- Gutxienez 750 m2 zelai berreskuratzea lurra landu, erein eta lorategi eginez (egoki jotzen bada, neurri honen ordez zuhaitzak landatuko dira; hala bada, gutxienez beste 500 euro landaretan urteko).

Ihartutako landareak kentzea mantentze-lanen barruan egingo da.

Landare berriak jarritakoan, enpresa esleipendunak, administrazioaren eskariz, landareen banaketa hobea proposatuko du landareen ur beharren araberako taldeak eginez eta landare osagarriak tartekatuz, hala nola, intsektuak edo gaixotasun uxatzaileak.

3.18. Konpostadora komunitarioen kudeaketa eta mantentze-lanak.

Enpresa esleipendunak konpostagailu komunitarioak kudeatzeko eta horien mantentze-lanak egiteko agindutako lanak egin beharko ditu, eta oinarrizko lantzat joko dira materia lehorra ekartzea, konposta ateratzea, garraiatzea eta, hala balitz, banatzea…

Eskoriatzan konpostatze lau gune daude:

- Elorreta
- Dorleta
- Aranburuzabala
- Ibarraundi museoa

Kudeaketa eta mantentze-lan horiek honakoak izango dira:

- Konpostagailuen funtzionamenduaren kontrola, zaintza eta horri buruzko txostena (hilero txostentxo bat egingo da konpostajea nola egiten ari denari buruz, materia egituratzailerik behar den, kudeaketa arazoren bat antzeman den, hobekuntzarik sar daitekeen eta abar).
- Materia egituratzailea hornitzea (ahal denean, udalean bertan sortutako inausketa hondar birrinduak).
- Konpostagailuak hustea, urtean bi aldiz.
- Konposta garraiatzea eta banatzea.

ESKORIATZAKO UDALERRIKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO, HORIEN MANTENTZE-LANAK EGIN ETA GARBITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA AURRETIAZ IZAPIDETUTA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA.

4. GUNEAK: ZERBITZUAREN ALDIZKOTASUNA ETA MAIZTASUNA.

Mantentze zerbitzua ondorengo aldizkakotasunen arabera egingo da:

- Martxoa, apirila eta maiatza: mantentze eta birjartze lan guztiak.
- Ekaina, uztaila eta abuztua: mantentze lan guztiak.
- Iraila, urria eta azaroa: mantentze lan guztiak.
- Abendua, urtarrila eta otsaila: Mantentze, birjartze eta inauste lan guztiak.

Maiztasunari dagokionez, ondoren zehazten dira guneka, baldintza teknikoen agiri honetako helburu diren zerbitzuak, 3. artikuluan deskribatutako lanak.

4.1. Aretxabaletako mugaren eta Kuatruena auzoaren arteko bidegorria.
Gutxieneko maiztasuna: urtean 2 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.2. Apotzagako hilerria.
Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz belarra eta sastrakak moztu, eta urtean 2 aldiz landare-hesiak moztu eta jorratzea.

4.3. San Pedro eta Intxaurtxueta auzoak
Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.4. Kiroldegiko kanpoko igerilekuko belartza.
Gutxieneko maiztasuna: landare-hesi guneak urtean 2 aldiz jorratu, 11 aldiz belarra moztu (2 aldiz urtarrila eta maiatza artean, hilean 2 aldez ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean, eta 1 urria eta abendua artean).

4.5. Santa Ana auzoa, Gaztañadui kalea eta Eduardo Gorosarri plaza
Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.6. Olazar auzoa eta Eskoriatzako hilerria
Gutxieneko maiztasuna:
- Hilerri inguruan: urtean 2 aldiz belarra eta sastrakak moztu (bata ekaineko hirugarren astean).
- Hilerriaren eta Bolibarko errepidearen arteko zatia: urtean behin belarra eta sastrakak moztu (irailean).

4.7. Herrigune historikoa (Hidalga kalea, Fernando Eskoriatza plaza, Gernikako arbolaren plaza eta San Juan kalea)

Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.8. Dorleta auzoa.

Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.9. Arbiñoste pasealekua eta Bidebarrieta pasealekua

Gutxieneko maiztasuna:

- Bidebarrieta (Antontxu eta alberja zaharraren artean): urtean behin (ekainean) belarra eta sastrakak moztu.
- Arbiñoste: urtean 3 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.10. Aranburuzabala kalea eta Olaeta auzoa

Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.11. Aingeru Guarda pasealekua

Gutxieneko maiztasuna: urtean 4 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.12. Aingeru Guardako biribilgunea:

Gutxieneko maiztasuna:

- urtean 2 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.13. Ur-depositu zaharreko, Bolibarko ur-deposituko eta Atxorrotxeko parkeak

Gutxieneko maiztasuna:

- Atxorrotx: urtean 2 aldiz belarra eta sastrakak moztu.
- Deposituak: urtean 4 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.14. Mendiola, Bolibar (Lete barne), Gellao, Mazmela, Zarimutz eta Maringo elizateak. elizateak. Elizateetako hilerrietan eta elizateetako elizen inguruan egin beharreko lanak.

Gutxieneko maiztasuna: urtean 2 aldiz belarra eta sastrakak moztu (bata, elizate bakoitzeko jaien aurretik, eta bestea, urriko hirugarren astean).

4.15. Landako monumentua

Gutxieneko maiztasuna: urtean 2 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.16. Bainuetxeko parkea (Torrebaso industrialdea)
Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.17. Ibarraundi museoa.
Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.18. Santa Marina plaza
Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.19. Antontxu kalea (Antontxu baserriaren eta Aranburuzabala kalearen artean)
Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz.

4.20. Kuatruena auzoa
Gutxieneko maiztasuna: urtean 4 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

4.21. Elorreta auzoa
Gutxieneko maiztasuna: urtean 6 aldiz belarra eta sastrakak moztu.

5. PERTSONALA

5.1. Orotarikoak.

Enpresa esleipendunak beharrezko langile gaituak izango ditu esleipenaren helburu den zerbitzua zuzen burutzeko, eta beharrezkoa balitz, zerbitzuaren jardunari buruzko prestakuntza eta baita prebentzioari eta lan osasun eta segurtasunari buruzkoa ere jaso beharko dute

Langileen buru, zuzenean edo zeharka, parke eta lorategietako lanetan esperientzia edo prestakuntza egiaztatu beharko duen teknikari bat egon beharko da.

Langileak bere eguneroko zereginetan prestasun eta begirune osoz aritu beharko dira. Herritarren bat beraiei zuzenduz gero, errespetuz, adeitasunez eta arretaz jokatu beharko dute.

Egitura administratiboa eta funtzionala izan beharko da, ardurak eta agintea modu logikoan eta zehatz izendatuta antolakunde segurua eta arduratsua egiteko, lortu nahi diren helburuentzat egokia eta baldintza teknikoen agiri honetan jasotako dokumentazio eta informazio osoa idazteko, erabiltzeko, kontrolatzeko eta interpretatzeko gai izango dena.

Derrigorrezkoa izango da bide publikoan ikusten diren eta oinezkoentzat arriskutsuak izan daitezkeen kalteak jakinaraztea.

Lizitatzaileek lorezaintzan (lorezaintzako mantentze zerbitzuak, lorezaintzako obrak...) aplikatzen diren ISO 9001, OHSAS 18001 eta ISO 14001 ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Enpresa esleipendunak erantzukizun zibileko aseguruak egin beharko ditu egin beharreko lanetan hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteak estaltzeko.

5.2. Zerbitzuak egiteko derrigorrezko lanpostuak.

Beharrezko izango da zerbitzuaren arduradun bat izatea, antzerako lanpostuan esperientzia egiaztatua izan beharko duena, zerbitzuaren antolaketa, zaintza eta kontrol lanak egunero egin beharko dituena eta baita ekipoak mantendu eta zaintzeko arduradun funtzioak ere.

Pertsona horrek gutxienez ingeniari tekniko (nekazaritzakoa, basogintzakoa, mendikoa edo baliokidea) maila izan beharko du, 5 urteko esperientziarekin gutxienez, enpresak egindako ziurtagiri bidez egiaztatuak.

Pertsona horrek hartu-eman zuzena izango du udal zerbitzu teknikoekin, eta zerbitzua egiterakoan aurkitzen dituen gorabehera guztien berri emango die, eta baita zerbitzua hobeto arrazionalizatzeko eta eraginkortasun hobea izateko iradokizunak ere. Era berean, bide publikoetan, kaleko tresnerian eta abarretan ikusten den edozein gorabeheraren berri emango du.

Adierazi den bezala, enpresa esleipendunak beharrezko langileak izango ditu zaintze lanak egoki egiteko, eta egin beharreko zerbitzu bakoitzerako eta zerbitzu osorako beharrezkotzat jotzen den lan eta plantilla aurreikuspenen proposamen zehatza jaso beharko da eskaintzan. Kanona kalkulatzeko kontuan izan da subrogatu beharreko plantillako bi langileren ezintasunengatiko edo absentismoagatiko ordezkapenen urteko % 100 hartuko duela bere gain enpresak.<0}

Horregatik, eskaintzetan kontratazioaren helburu diren zerbitzuak egiteko beharrezko langile kopurua adierazi beharko da, horietako bakoitzak izango duen lanaldia eta funtzioak, eta baita bestelako informazioa ere: izenak, maila, prestasun portzentajea, ordezkapenak, oporrak eta abar.

Langileen urteko antolaketa planak behar besteko langileak aurreikusi behar ditu lan karga handiagoa dagoen aldietarako (udaberri bukaeran eta uda hasieran); hortaz, aldi horietan plantillako langileen oporrak mugatu eta murriztu beharko lirateke. Ordezkapenak eginez gero, ordezkatzaileak ordezkatuaren kualifikazio bera izan beharko du.

Zerbitzurako beharrezko plantilla kalkulatzeko erabilitako metodoa zehaztu beharko da.

5.3. Langileekiko betebeharrak.

Lan kontratuen subrogazioa indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera egin beharko da. Gai hori administrazio baldintzen agirian zehazten da.

Baldintza teknikoen agiri honen eta ondoren egingo den esleipen kontratuaren helburu diren zerbitzuak emateko atxikitako langileek ez dute inolako lan harremanik Udalarekin kontratuak irauten duen bitartean, eta ezta hori amaitutakoan edo suntsitutakoan ere.

Inolaz ere ezingo zaio inolako erantzukizunik eskatu Udalari, eta Udalak ez du inongo erantzukizunik izango kontratistaren eta bere langileen arteko erreklamazioetan.

Zerbitzuari atxikitako lanaldi osorako langile guztiak kontratuaren helbururako soilik erabiltzeko izango dira. Zerbitzuaren helburutik kanpoko beste zerbitzu batzuk egiteko Udalak berariaz emandako agindua edo baimena izan beharko da.

Enpresa esleipenduna izango da langileen baldintzak eta beraien kontratuak indarrean dagoen legedian xedatutakoari egokitzeko arduraduna. Edozein arau-hauste kontratistaren beraren erantzukizuna izango da.

Enpresa lizitatzaileek euren eskaintzetan adierazi beharko dute hartu beharreko langile guztiak baino gehiago kontratatzerakoan zein irizpide erabiliko dituzten. Era berean, langileekiko zein politika eramango duten proposatu beharko dute lizitatzaileek; bereziki, langileen prestakuntza, segurtasuna eta higienea eta beharrezko mediku zerbitzuei dagokionez.

5.4. Komunikazioak.

Lanaldian zehar zerbitzuaren arduradunarekin harremanetan jartzeko aukera emango duen komunikazio sistema bat izan beharko du enpresa esleipendunak. Era berean, larrialdietarako telefono bat ere izan beharko du, abisuei eta erreklamazioei erantzuteko eta aginduak jasotzeko. Zerbitzu hori erabilgarri egongo da 24 ordutan 365 egunetan.

Gainera, enpresa esleipendunak posta elektroniko helbide bat eman beharko du eta irekita izan Udalarekin komunikatzeko.

Zerbitzuaren arduraduna eta lorezaintzako teknikari espezialista aldatuz gero, edo behin betiko ordezkatu, enpresa esleipendunak idatziz eta behar besteko denboraz proposatuko dio Udalari aldaketa hori. Idatziari proposatutako langile berriaren curriculuma erantsiko zaio, ordezkatutakoaren antzeko baldintzak bete beharko dituena.

Kontratuak irauten duen bitartean bajaren bat izanez gero (borondatezkoa, erretiroa…) zerbitzuaren plantillan, Udalak erabakiko du amortizatzen den edo langilea ordezkatzen den. Eta, hala badagokio, kontratuaren koste ekonomikoa erregularizatu beharko da.

Gaixotasunagatik, istripuagatik, prestakuntza-ekintzengatik edo baimenengatik gertatzen diren absentzia guztiak idatziz jakinaraziko dira; azken bi kasuetan, aldez aurretik.

Hilabetero aurkeztuko da lan egoeraren, istripuz izandako bajen, gaixotasun bajen eta absentismoaren laburpen bat.

5.5. Uniformeari buruz.

Baldintza teknikoen agiri honetako zerbitzuei atxikitako langileak behar bezala uniformatuta egon behar dute, ematen duten zerbitzua zein den identifikatu, segurtatu eta kontrolatu ahal izateko eta kasu guztietan, Laneko Arriskuen Prebentzio araudiak eskatutako segurtasun eta babes baliabideekin.

Jantzi kopurua eta kalitatea, uneoro, indarrean dauden hitzarmen kolektiboek zehazten dutena izan beharko da.

Enpresa esleipendunaren ardura izango da honelakorik ez gertatzea: langileen garbitasuna eza, apaingarritasun eza, jantzien uniformetasun falta edo langileek herritarrekiko jokabide eskasa izatea, eta baita zerbitzuak ematerakoan zarata gehiegi ateratzea ere.

Alperreko zaratak ekiditeko, egin beharreko lanak egiterakoan gehiegizko zarata atera dezaketen egoerak saihestuko dira, zerbitzura atxikitako langileek beraien lana egiterakoan ibilgailuak egoki gidatu beharko dituzte eta makineria eta tresnak kontuz erabili, eta elkarri esan beharrekoak ozenki ez esan.

5.6. Ordutegia.

Enpresa esleipendunak, eskaintzan, ordutegiaren proposamena adieraziko du, eta kontuan izango du ezingo duela lanaldia hasi goizeko 7ak baino lehen, ez eta 22:00ak baino geroago bukatu ere, zaratarik ez ateratzeko.

Edonola ere, zerbitzua esleitu eta hasi baino lehen onartuko du lan ordutegia Udalak.

Udalak zenbait ekipo erabiltzea mugatu dezake programatutako lanetan, edo baldintzatu dezake horien erabilera denboraldi batera, lan batera edo ordutegi batera.

5.7. Urgentziak: haizeteak, elurteak.

Elurte edo izozte handiak izanez gero, udal zerbitzu teknikoek ezarriko dituzte eman beharreko zerbitzuak, eremuak eta gainerako xehetasunak. Kasu horretan, kontratako langileak Udalaren esanetara egongo dira, lorategietako mantentze zerbitzuarenak ez diren lanetarako ere bai.

Gainera, egoera bereziak edo ustekabekoak ematen direnean (istripuak, atmosferako fenomenoak: haize indartsuak, elurteak) zuhaitzek edo arriskutsu izan daitekeen eta kendu beharreko beste edozein elementuk erasandako segurtasun publikoa mantendu eta berrezartzeko behar diren premiazko eta segurtasunezko lan bereziak egingo dituzte.

5.9. Hizkuntza betebeharrak.

1.- Herritarrekin harremana duten heinean, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete beharko lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko lituzkete hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, kontratu honen helburu den zerbitzura atxikiko diren langileen %50ari Europako Erreferentzia Markoaren B1 gaitasunaren pareko ahozko maila egiaztatzea eskatuko zaio (Administrazioko 1.HEren parekoa, ahozkoan).

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Subrogazio kasuetan, langileek ez badute eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen, beharrezko neurriak adostuko dira zerbitzu hartzaileen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

2.- Eman beharreko zerbitzuaren ondorioz seinale, errotulu,ohar, edo bestelako komunikaziorik jarri behar izanez gero, euskara hutsean idatziko dira mezua gaztelaniaz ere ulergarria baldin bada (mezu ezaguna delako edo bi hizkuntzetan antzeko grafia duelako). Bestela, piktograma bidez egingo dira eta euskarazko

azalpen mezua izango dute ondoan. Komunikazioa bermatzeko beste aukerarik ez dagoenean, elebitan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez

3.- Enpresak Udalarekin dituen komunikazioak (kontratu, faktura,...), euskaraz edo ele bietan izango dira.

6.- MATERIALA ETA MAKINERIA.

6.1. Orotarikoak.

Zerbitzuan sartzen dira lanak kalitate optimoaz egiteko beharrezko diren teknika eta tresneria guztiak. Sistema horiek, ahal dela, mekanikoak izango dira eta zehatz-mehatz deskribatuko dira eskaintzan.

Enpresa esleipendunak zerbitzua egoki emateko beharrezko makineria eta ekipo guztiak izan beharko ditu.

Kontratuan ipiniko diren baliabide material eta mekanikoak enpresa esleipendunaren jabetzakoak izan daitezke edo bestelako alokairu merkantil edo finantzario bidez lortutakoak. Edozein kasutan, eskaintzan garbi geratu beharko da zerbitzua emateko erabiliko den makineria eskuratzeko modalitatea (kontratistaren jabetzakoa, amortizagarria, alokatua…).

Zerbitzua emateko beharrezko material, makineria eta tresna guztiak eskuratzea enpresa esleipendunaren kontura eta kargura izango da, eta baita material guztiaren zaintze eta mantentze gastuak, derrigorrezko azterketak, aseguruak eta abar.

Makineria guztia zaintza eta garbitasun egoera onean egon beharko da uneoro, eta beraz, dagozkien ordezko ekipoak izan beharko dituzte.

Makina guztiek beraien erabilerarako behar diren baldintzak bete beharko dituzte, eta indarrean dagoen araudiak zarata (zarata gutxiko makineriaren erabilera), kutsadura eta segurtasun aldetik ezarritakoa bete beharko dute. Bereziki, ibilgailuak eta tresnak erabiltzeko moduaren araberako zaratak zainduko ditu enpresa esleipendunak, debekatuta egonik klaxona edo beste edozein gailu akustiko erabiltzea herrigunean.

Ibilgailu berriek kontratu hasieran indarrean dagoen derrigorrezko araudia bete beharko dute gutxienez.

6.2. Makineria eskuratzeko modalitateak.

Lehen esan bezala, kontratuan ipiniko diren baliabide material eta mekanikoak enpresa esleipendunaren jabetzakoak izan daitezke edo bestelako alokairu merkantil edo finantzario bidez lortutakoak.

Amortizazioa eskatuko duen metodo bat aukeratuz gero, amortizazioaren iraupena, urteetan, adierazi beharko da, eta hori kontratuaren iraupena baino urte gehiagorako baldin bada, ekonomia atalean eskaintza bat aurkeztu beharko da, makineriaren amortizazioa barne, Udalak makineria hori erostea nahiko balu.

6.3. Materialaren, ibilgailuen eta makineriaren esklusibitatea.

Lizitatzaileak bere eskaintzan kontraturako ipinitako materialak esklusibotasunik duen edo ez adierazi beharko du. Edonola ere, kontratuak dirauen bitartean % 100ean Udalaren erabilerarako den makineria ezingo da, inolaz ere, zerbitzu horretatik kanpo erabili beste zerbitzu batzuk emateko, Udalaren berariazko agindu edo baimenik ez baldin badu.

6.4. Tresnak eta gainerako materialak.

Enpresa esleipendunak kontratatutako zerbitzua ondo betetzeko beharrezko diren orgak eta tresnak jarri beharko ditu, eta beraz, dagozkien ordezkoak izan beharko dituzte sor daitezkeen gorabeherei aurre egiteko.

Era berean, bide publikoan lan egiten duten langileen eta herritarren segurtasuna bermatzeko babes eta seinaleztapen neurri guztiak izan beharko ditu bere kargura.

6.5. Makineria zerbitzuan hasteko epea.

Baliabide mekanikoak gehienez ere 10 eguneko epean izan beharko dira zerbitzurako erabilgarri, berriak izan ezik; horiek gehienez ere bi hilabeteko epea izango dute erabilgarri egoteko.

Kasu bakoitzean zerbitzuaren koste ekonomikoa makineriaren erabilgarritasun erritmoari dotuko zaio.

6.6. Makineria ordezkatzea.

Matxurarik edo beste edozein gorabehera izanez gero, 24 ordu baino lehenago jakinarazi beharko da, eta makineria 7 egun baino lehenago ordezkatu.

Kontratista behartuta dago, bere kontura eta inolako diru ordainik gabe, kontratan sartutako eta, gastatu delako, lapurtu dutelako, hondatu delako edo beste edozein arrazoirengatik, baja izan den edozein material berriz ere jartzera.

6.7. Inbentarioa.

Kontratistak, zerbitzua martxan jarri eta 3 hilabetera, zerbitzuan erabili beharreko makineriaren eta tresnen inbentarioa aurkeztu beharko du, eta eguneratuta izan aurrerantzean.

Zerbitzuak emateko azken eguna baino, gutxienez, 3 hilabete lehenago, azken inbentarioa formalizatuko da, eta bertan adierazi beharko da elementu bakoitza zer nolako egoeran dagoen. Kontratistak hasierako inbentarioan jasotako elementuak, edo horien ordezkoak, entregatu beharko ditu.

6.8. Makineriaren mantentze-lanak.

Kontratistaren ardura izango da makineria egoera onean egoteko beharrezko mantentze-lanak egitea.

Enpresa esleipenduna behartuta dago kontratu honetarako material guztiaren prebentziozko mantentze plan bat aurkeztera, eta bertan adierazi beharko ditu egin beharko diren koipeztatze lanak, azterketak, kanpoko garbiketak, barruko garbiketak eta aldizkako bestelako operazioak.

Makineriari eta ibilgailuei egindako mantentze lanen partea aurkeztu beharko da hiru hilero, eta bertan jaso beharko dira ere antzemandako matxurak eta gorabeherak.

Ibilgailuen eta makinen mantentze operazioak indarrean dagoen araudiaren arabera egin beharko dira.

6.9. Makineriaren identifikazioa eta errotulazioa.

Erabili beharreko material guztiak, beraien ezaugarriek hala uzten badute, atean edo ikusteko moduan, Udalak ezarritako diseinuaren arabera margotutako inskripzioa eraman beharko dute zerbitzuarekiko identifikazioa zalantzarik gabekoa izan dadin. Gutxienez, ondorengo materiala izan beharko du esleipendunak:

- Sasi-garbitzeko makinak (4).
- Belarra mozteko makinak (2).
- Belar-biltzaileak (3).
- Tona gutxiko kamioneta garbiketa, belar mozketa eta inausketa hondakinak batzeko, 3,5 tn-koa gutxi gorabehera, iraulkiarekin (1).
- Heskai-moztekoak (3), horietako bat pertikaduna.
- Belarra moztu, batu eta *mulching* egiteko traktoreak.
- Homologatutako aldamioa.
- Tresna txikiak eta lanabesak.
- Ureztatzeko materiala (mahukak, pitak, ihinztagailuak eta abar).
- Materia organikoarentzako birringailu eramangarria lur-estalkiak edo mulchak in situ egiteko. Aintzat hartuko da zarata eta gas kutsatzaileen isurpen mailak baxuak izatea makinaren onarpen ziurtagirian deklaratutako baloreen arabera (*CE-type approval certificate*).

Zerbitzua emateko beharrezko material, makineria eta tresna guztiak eskuratzea enpresa esleipendunaren kontura eta kargura izango da, eta baita horien zaintze eta mantentze gastuak ere.

Makineria guztia zaintza eta garbitasun egoera onean egon beharko da uneoro, eta beraz, dagozkien ordezko ekipoak izan beharko dituzte.

Kontratan erabiliko diren material, makina eta erreminta guztiak enpresa esleipendunarenak izango dira, eta kontrata amaitzen denean bere jabetzakoak izaten jarraituko dute.

6.10. Ibilgailu flota.

Zerbitzurako proposatutako ibilgailu flotaren (turismoak edo ibilgailu komertzial arinak) errekuntza-gas isurketen batez bestekoa EURO 4koa izan beharko da. Gainera, baloratuko da zerbitzurako zenbat ibilgailu (portzentajea) diren EURO 5 edo handiagoak eta flotak, batez beste, CO2 isurketa baxua izatea kontsumoaren (litro/km-ko) eta erregai motaren arabera.

Informazio hori memoria teknikoan jasoko da.

4 alditako motorren (ibilgailuenak) olio lubrifikatzaileek gutxienez % 25eko birsortutako olio-oinarria izatea baloratuko da.

Aplikazio irekietan (kateak, sistema hidraulikoak, 2 alditako motorrak…) emateko olio eta koipe lubrifikatzaileentzat honako hauek baloratuko dira:

- Ez sailkatua egotea ondorengo arrisku koderen batekin 255/2003 Errege Dekretuaren arabera: R45, R46, R60, R61, R62, R63, R64 eta horien nahasketak.
- Europako Etiketa Ekologikoan edo baliokideetan zehaztutako osaera, biodegradatasun, bioakumulazio-ahalmen eta ur-toxikotasun baldintzak betetzea.

6.11. Urteko txostena.

Enpresak txostena aurkeztuko du urtero, honako hauek jasoko dituena:

- Produktuen balantzea eta erabilitako kopuruak, kontsumoa monitorizatu eta dosiak kontrolatzen joateko, ahal izanez gero, murriztuz, baina, betiere, ezarritako estandarrak gordez.
- Bere eskaintzan aitortutako ingurumenerako produktu onenen erosketa egiaztatzeko fakturak.
- Makineriaren eta ibilgailuen erregai kontsumoa.
- Sortutako hondakinak gaika banatuta.

7. INSTALAZIOAK.

Kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, eta eman beharreko zerbitzuak ondo funtzionatuko duela bermatzeko, enpresa esleipendunak behar besteko instalazioak izan beharko ditu Eskoriatzan edo ahalik eta gertuen (herri-gune historikotik 10 km baino urrutiago ez) kontratu honen betebeharrak betetzeko bulego, aldagela, biltegi eta zerbitzuko ibilgailuen garaje (konpontze eta mantentze lanak egin, garbitu, desinfekatu, gorde, zaindu eta abar egiteko) aldetik.

Lokalaren kokapena eta ezaugarri nagusiak adierazi beharko dira eskaintzan.

Lizitatzaileak instalaziorik ez balu eskaintza aurkezterakoan, kontratuaren hasiera egunerako lortzeko konpromisoa hartu beharko du.

Kontratistaren kontura izango dira lokala egokitzeko gastu guztiak eta baita funtzionamendukoak (ura, argia, telefonoa, gasa...), tasak, aseguruak, lizentziak eta abar ere.

Lokalek laneko segurtasunari eta higieneari buruz indarrean dagoen araudia bete beharko dute, eta baita isurketei, ibilgailuen garbiketari, jarduera gogaikarri eta osasungaitzei eta abarrei buruzko araudiak ere.

Lizitatzaile bakoitzak adierazi beharko du aurreikusitako instalazioak lehiaketako helburuarentzat bakarrik diren edo beste zerbitzu batzuekin partekatu behar diren. Partekatzea balitz, egoera hori kontuan izan beharko da instalazioak sortutako kargak banatzerakoan.

ESKORIATZAKO UDALERRIKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO, HORIEN MANTENTZE-LANAK EGIN ETA GARBITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA AURRETIAZ IZAPIDETUTA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA.

8.- LANEN ANTOLAMENDUA ETA KONTROL SISTEMAK.

Zerbitzuaren antolamenduaren azterketa osoa eta zehatza aurkeztuko da, eta honako hauek zehaztuko dira eman beharreko zerbitzu guztietarako: proposatutako ekipoak, ekipo bakoitzari esleitutako zereginak, baliabide materialak, ibilbideak, ordutegiak, maiztasunak, kontrol-sistemak eta abar.

Enpresa esleipendunak urtero aztertu beharko ditu egitea komeni zaizkion aldaketak, eta aldaketa horiek jasoko dituen plan berria aurkeztu beharko dio Udalari, onar dezan.

Kontratatzen diren zerbitzuak udal administrazioaren ikuskaritzapean egongo dira uneoro, eta Udalak nonahi eta noiznahi egin ahal izango ditu pertsonal nahiz material ikuskapenak. Administrazioak agintzen duen ikuskapena zerbitzuaren lokal eta bulegoetara sartu ahal izango da, eta antolamenduari buruz eskatutako datu guztiak eman beharko zaizkio.

Hiruhileko bakoitzaren hasieran enpresa esleipendunak hiruhilekoari buruz aurreikusitako plangintza aurkeztuko du, eta gero, hilero, kontratatutako zerbitzuaren arduradun zuzena udal arduradunekin bilduko da alderaketa txostena aurkezteko eta kontratuan aurreikusitakoa zenbateraino bete den, zeintzuk izan diren desbideraketak eta horien arrazoiak eta justifikazioak, egongo balira, baloratzeko.

Txostena dokumentatuta egongo da, eta egindako zeregin guztiak argi eta zehatz jaso beharko ditu (jarduketak, azalpen teknikoak, argazkiak, hautemandako gorabeherak, konponketak eta abar).

Kontrol sistemak.

Enpresa esleipenduna izango da zerbitzuaren kalitatearen zuzeneko arduraduna, eta uneoro kontrolatuko ditu, egoki iritzitako sistemaren bidez, zerbitzuarekin lotutako alderdi guztiak. Eskaintzan aurkeztu beharko da lanen kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko zerbitzuaren kontrol plana edo sistema, non proposatutako neurriak definitu beharko diren, eta ahalik eta zehatzen deskribatu beharko diren jarduera moduak, ikuskapenen eta, hala balegokio, neurri zuzentzaileen emaitzak jasotzeko metodoa, baliabideak eta kontrolaren arduradunak.

Kontrol plana edo sistema baloratu egingo da, bereziki, zerbitzuen maiztasunari eta horien kalitatea betetzen dela kontrolatzeari eta bermatzeari dagokienez, baina, beste kontu batzuk kontrolatzeko ere erabili ahal izango da.

Gainera, kontratatutako zerbitzuak Udalaren ikuskaritza eta zaintza pean egongo dira, uneoro, lanak koordinatzeko, zerbitzua kontrolatzeko eta, orokorrean, zerbitzua ematerakoan operatiboaren

baldintzak, zerbitzuaren kalitate helburuak eta ezarritako ingurumen-jasangarritasun parametroak betetzen direla egiaztatu eta bermatzeko.

Zerbitzuaren ikuskaritzak egindako txostenak ikusita, Udalak zehaztuko ditu zerbitzuaren antolaketan eta prestazioan egin daitezkeen zuzenketak edo aldaketak, derrigorrezkoak izango direnak enpresa esleipendunarentzat. Horretarako, emaitza onak berehala ematea ahalbideratuko duten tresna oso arinak aurreikusi beharko dira.

Enpresa esleipenduna behartuta egongo da ere kontrata honen zerbitzuekin lotuta Udalak eskatu bezainbeste txosten eta azterlan prestatzera.

Lan parteak. Azterlanak.

Behin zerbitzua martxan jarrita, enpresa esleipendunak aldizka aurkeztu beharko ditu, euskarri informatikoan, ondorengo lan parteak:

a.- Berehalako partea (24 orduko epean).

- Makineriaren matxurari edo langileen “aldi baterako ezgaitasun iragankorrari” buruzko gorabeheren berri emateko.

b.- Hileroko partea.

- Lanak kontrolatzeko partea, lorategi multzo edo gune bakoitzean egindako lanak, langileak eta denbora jaso beharko du. Excel formatoan egin beharko da.
- Hondakindegira eramandako landare hondakin kopurua (kg).
- Gorabeherak, matxurak, ureztatze sarean egindako konponketak.
- Lan egoeraren, istripuz izandako bajen, gaixotasun bajen eta absentismoaren laburpena.
- Makineriari eta ibilgailuei egindako mantentze lanak eta antzemandako matxurak eta gorabeherak.

Gainera, urtero ondorengo planak edo azterlanak aurkeztu beharko dira:

- Ureztatze programarako urteko plana: guneak, dosiak, maiztasuna, orduak.
- Lore eta landare bizikor guneak abonatzeko plana.
- Inausketa plana: egunak, baliabideak eta segurtasun neurriak.
- Eskoriatzan tratamendu fitosanitarioen beharrei buruzko azterlana.
- Kontratuaren lehen urtean, zuhaitzen zaintza eta mantentzeari buruzko txostena.
- Opor plana.

- Makinariaren eta gainerako tresnen inbentarioa.
- Udaletxeko balkoian urteko loreak, erraboilak eta landare bizikorrak jartzeko proposamena.
- Landareak birjartzeari, landare zerrendari eta hondatutako guneei eta horiek konpontzeko kostuari buruzko azterlana.

9. MEMORIAREN EDUKIA ETA LUZERA.

Zerbitzua azaltzeko memoriak gehienez ere 50 orri izan beharko ditu. Memoria egiteko letra tipo bakarra erabiliko da, sinboloetan izan ezik, horietan libre izango baita beste letra tipo irakurterrazeren bat sartzea. Onartutako letra tipoak honakoak dira: Arial 11, Calibri 11 eta Times New Roman 11

Memoriak honako atalak izango ditu:

1) Eman beharreko mantentze zeregin bakoitzari buruzko banakako azterketa, gutxienez, baldintza teknikoen agirian aipatutakoak, eta bertan honako hauek aipatu beharko dira: lan sistema mota (eskuz edo mekanikoki, eta azken kasu horretan, erabiliko den makineria edo tresnak) eta zerbitzu mota bakoitzaren exekuzio eraren deskribapena, behar diren langileak, aurreikusitako errendimenduak, ekipoen eraketa, maiztasunak, lanen urteko banaketa eta enpresa esleipendunak zerbitzuaren onerako interesgarritzat jotako beste edozein ohar.
Nahitaezkoa izango da ere mantentze-lanen koadroa egitea.

2) Langileak. Plantillako aurreikuspenen proposamen xehatua, kategoriaz kategoriako organigrama, zuzeneko langileak, baja kasuetarako langileak, tailerretako langileak, administraziokoak eta gainbegiratzekoak, zuzendaritzakoak edo gerentziakoak (beharrezko langile guztiak jaso behar dira, beraien lanbide kategoria, antzinatasuna…), lan ordutegia, kontratazio berrietarako irizpideak, erretiroak, langileen prestakuntza plana, segurtasun eta osasun plana, pizgarrien plana, oporrak, jantziak, babes pertsonaleko ekipoak eta abar.
Nahitaezkoa izango da ere aurreko paragrafoaren araberako datuak jasoko dituen langileen koadroa egitea.

3) Makineria, ekipoen eta materialen izenen zerrenda, titularitatea, deskribapena, kopurua, ezaugarri teknikoak, eskatu daitekeen araudia bete izanaren frogagiria edo egiaztagiria (zaratak, usainak, hautsa sortzea…), makinen potentzia, erregai fosilen kontsumoa, lubrifikatzaileen kontsumoa, energia alternatiboen kontsumoa, ibilgailuen mantentze plana, horien erabilera indizeak, erreserbako makinak, amortizazio aldia, ordeztu edo berritzeko erregimena, informatika eta komunikazio ekipoak eta aseguruak.
Nahitaezkoa izango da ere aurreko paragrafoaren araberako datuak jasoko dituen makineriaren eta gainerako tresnen koadroa egitea.

4) Instalazio eta baliabide komunak. Enpresa esleipendunak berak proposatzen dituen instalazioen kokapena eta ezaugarriak adierazi beharko ditu.
Nahitaezkoa izango da ere proposatutako instalazioen eta baliabide komunen koadroa egitea.

5) Kalitate eta kontrol sistemak. Eskaintzan lanen kalitatea kontrolatu eta bermatzeko zerbitzuaren kontrol plana edo sistema aurkeztu beharko da eta proposatutako neurriak zehaztu beharko dira, ahalik eta zehatzen deskribatuz jarduteko era, ikuskapenen emaitzak erregistratzeko metodoa eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak, eta baita izango dituen baliabide materialak eta giza baliabideak ere.

6) Lan parteak. Aldizka nahitaez aurkeztu beharreko lan parteen formatuak aurkeztu beharko dira, eta gainera, urtez urte aurkeztu behar diren planei edo azterketei buruzko formatua ere aurkeztu beharko da.

7) Nahitaez aurkeztu beharreko azterlanak. Honako hauek izango dira:

a.- Udalerriko guneetan eta udaletxeko balkoian urteko loreak, erraboilak eta landare bizikorrak jartzeko proposamena. Gune bakoitzerako adierazi beharko da espeziea, landare kopurua, landaketa dentsitatea eta loratze sasoia.

b.- Eskoriatzako lorategietan dauden landareen izurriteen eta gaixotasunen azterketa xehatu bat, eta hala badagokie, gaixotasun edo izurrite bakoitzerako proposatzen diren prebentzio eta sendatze tratamenduak, honako hauek adieraziz: erabiliko diren produktuak, zelan aplikatuko diren, dosia, kostua…

c.- Zuhaitzei buruzko azterketa. Nahitaez egin beharrekoa kontratuaren lehen urtean. Azterlana nola egingo den jarriko da eskaintzan, analisi instrumentalerako elementuak eta neurri zuzentzaileak adieraziz.

Halaber, nahitaez aurkeztu beharreko azterlanen koadroa ere egin beharko da.

1 ERANSKINA

Kokapena	**AZALERA (m^2)**
Kuatruena	4760

Bidegorria Kuatruena	2221
Aingeru Guarda	7326
Geltokia	438
Olaeta	294
Aranburuzabala 46	554
Antontxu	750
Huhezi	4152
Dorleta	5772
SJ 12	1575
Kanposantua	8350
Olazar	212
San Juan	54
Txistularien harratea	89
Gernika	378
Arana	19
Gorosarri	670
Arbiñoste	2891
Santa Ana	668
Liburutegia	755
Museoa	3270
Kiroldegia	3335
San Pedro	7365
Intxaurtxueta	6826
Torrebaso	12597
Elorreta	9799
Elizateak	5230
Landa	743